

## LETREN FAKULTATEKO LAN-ESPERIENTZIAREN BIDEZ GRADUKO IKASKETETAN KREDITUAK AITORTZEKO PROZEDURA

UPV/EHUko Graduko Ikasketetan kredituak aitortu eta transferitzeko araudiaren 9. artikulua honako hau aitortzen du:

Titulu ez-ofizialak lortzera bideratutako unibertsitate-irakaskuntzetan egindako kredituak, eta egiaztatutako lan- eta lanbide-esperientzia.

1. Eskuratutako gaitasunen eta ezagutzen arteko egokitasuna kontuan hartuta, titulu ez-ofizialak lortzera bideratutako unibertsitate-irakaskuntzetan egindako kredituak eta egiaztatutako lan- eta lanbide-esperientzia aintzatetsi ahal izango dira, betiere esperientzia hori egin nahi den tituluak berezko dituen gaitasunekin lotuta badago.
2. Lanbide-esperientziatik eta unibertsitate-ikasketa ez-ofizialetatik abiatuta aintzatesten diren kredituen kopurua, oro har, ezin da izan ikasketa-plana osatzen duten **kreditu guztien ehuneko 15 baino handiagoa**. Kreditu horien aitortpenak ez du horien kalifikaziorik jasoko, eta, beraz, ez dira zenbatuko espedientea barematzeko.

UPV/EHUko Letren Fakultateko Batzarrak, 2023ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, honako prozedura hau onartu zuen Letren Fakultateko lan- edo lanbide-esperientziagatik graduko irakaskuntzetan kredituak aitortzeko:

1. Aplikazio-printzipio orokorrak:

- a) Aitorpena, gehienez ere, **6 aukerako kreditukoa izan daiteke lan-esperientzian egiaztatutako urte bakoitzeko**, edo dagokion hilabete-zatia, aurkeztutako kontratu-mailaren arabera.

2. Egiaztatutako lan-esperientzia honela aitortu ahal izango da:

- a) Esperientzia horrek lotura zuzena izan beharko du tituluak berezko dituen gaitasunekin.
- b) Lan-esperientziagatik kredituen gehieneko kopuruan (36 kreditu), curriculumetik kanpoko praktikengatik aitortu daitezkeen kredituak sartzen dira. Hortaz, lan-esperientziagatik baimendutako kredituen gehieneko kopurua aitortuz gero, ezin izango da curriculumez kanpoko praktikengatik kreditu gehiagorik aitortu. Lan-esperientziagatik 30 kreditu aitortuz gero, 6 gehiago aitortu ahal izango dira curriculumetik kanpoko praktikengatik.

d) Ebaluazio-prozesuan zehar, eta eskuratutako lan-gaitasunen eta ikasketa-planari buruzkoen arteko baliokidetasuna egiaztatzeko, elkarrizketa bat egiteko edo azterketa bat egiteko eskatu ahal izango zaio ikasleari, eta horretarako deialdia gutxienez 15 egun lehenago egingo zaio.

### 3. Kredituak aitortzeko aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Memoria bat, zehatz azaldu eta justifikatuko duena lanean lortutako gaitasunen eta kredituak aitortu nahi diren ikasketei lotutako gaitasunen arteko parekotasuna.

b) Inoren konturako langileak:

- Lan bizitzaren ziurtagiria, adierazita enpresaren izena, lan kategoria (kotizazio taldea) eta alta/baja aldiak.
- Lan kontratuak eta horien luzapenak, halakorik egonez gero (jatorrizkoak eta kopiak, eratzeko), erakunde ofizial eskudunak erregistratuak.
- Langile publikoen kasuan administrazioak egindako izendapena (jatorrizkoa eta kopia, eratzeko), eta betetako eginkizunen ziurtagiri osagarriak, halakorik egonez gero.
- Eskatzaileak egindako lanak egiaztatzen dituen dokumentua, enpresak egina, zehaztuta noiztik noiz arte egin diren lan horiek.

d) Langile autonomoak edo norberaren konturako langileak:

- Lan bizitzaren ziurtagiria, adierazita enpresaren izena, lan kategoria (kotizazio taldea) eta alta/baja aldiak.
- Enpresaren egiaztatzea, adierazita Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ekonomia jardueren sailkapen nazionalako kodea. Era berean, elkargo profesionalen ziurtagiriak aurkeztu ahal izango dira, azalduko dutenak aurrera eramandako jardueraren eta lortutako gaitasunen arteko erlazioa, bai eta curriculum profesionala ere. Dokumentu horiek ez dira izango lotesleak balorazioa egiterakoan, baina baliagarriak izan daitezke agiri ofizialetako informazioa osatzeko.